

# Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa (2008-2018)

IÑIGO SATRUSTEGI

## Sarrera

Duela 11 urte, *Senex* aldizkariaren 37. zenbakian, «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)» lana publikatu zuen Manu Lopez Gasenik. Lan horrek EIZIEk etorkizunean Literatura Unibertsala bilduman txertatu behar lituzkeen tituluen ezaugarriak proposatzeko balio izan zuen, eta, horretarako, beharrezkoa zen euskarara ekarritako testuen azterketa kuantitatiboa zein kualitatiboa egitea.

Jarraian aurkeztuko dugun lana, berriz, EHUko Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketen Gradu Amaierako Lan gisa aurkeztu genuen, 2019ko ekainean, Isabel Etxeberriaren tutoretzapean. 10 urte igaroak ziren, beraz, Manu Lopez Gaseniren azterketa kaleratu zenetik guk gure lana egiteari ekin genion arte. Denbora tarte aski luzea zela iritzita, eta zifra borobila aitzakia gisa hartuta, Manu Lopez Gaseniren lanaren jarraipen gisako bat egin genuen.<sup>1</sup>

Gainera, aintzat hartu genuen urte horietan guztietan euskal literatur sisteman aldaketa ugari egon zirela, hala nola: argitaletxe berrien agerpena, Interneteko baliabideen ugaritzea eta baita literatur itzulpenak bultzatzeko hainbat ekimen ere.

Halaber, itzulpengintzaren jarduerari buruzko gogoeta eta behar berriak mahaigaineratu dira. *Senex* aldizkarian bertan, itzultzaileen generoari, euskaratzen diren genero literarioen arteko arrakalari eta hizkuntza txikien arteko literatura itzultzeari buruzko lanak kaleratu izan dira.

Mugimendu handia sumatu genuen urte horietan, eta, beraz, literatur itzulpen sisteman eraginik izan ote duen jakiteko, datutan kuantifikatu nahi izan genuen.

---

1. EIZIEren webgunean dira azterketa honen eranskinak (inbentarioa): <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak>

Beraz, lan honen helburu nagusia aurrekari dugun inbentario eta azterketa horrekin alde-  
raketa egin eta lortutako datu esanguratsuenetan oinarrituta balizko joera berri horiek haute-  
matea da.

## Metodologia

Manu Lopez Gaseniren lanetik abiatuta, orain dela hamar urte erabili zuen metodologiaren  
antzekoa erabili genuen guk ere. Hala ere, ez genuen alboratu denboraren poderioz sortu eta  
esanguratsuak izan zitezkeen beste aztergai eta parametro batzuk aztertzeo aukera.

EIZIEk kudeatzen duen Nor da Nor (NdN) datu basea izan genuen iturri nagusia. Datu  
base horretan, liburuak zein Interneten publikatutako itzulpenak biltzen dira. «Euskal itzul-  
penen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)» lanean, liburu formatuan kaleratutakoak baino  
ez zituen bildu Lopez Gasenik; guk, ordea, pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela In-  
terneten ikusgai daudenak aztertzea ere, paperezko itzulpenen emaitzak sareetako emaitzekin  
alderatzeko.

Prozedura honi jarraitu genion:

Hasteko, NdN bilatzailean bilatu genituen 2008tik<sup>2</sup> 2018rako tartea, euskara xede hizkun-  
tza eta «Literatura» etiketa duten liburuak. Guztira, 586 lan bildu genituen 2019ko apirilaren  
1ean egindako bilaketan. Jarraian, eskuzko orrazketa bat egin behar izan genuen, zenbait izen-  
buru kentzeko (itzulpen ez baizik eta laburpen/moldaketak zirenak, eta abar). Horretarako,  
NdN kudeatzen duen Bego Montorioren laguntza izan genuen. Beraz, gure azterketan, li-  
buruen datuak lortzeko, 520ko zifraren gainean lan egin genuen, eta, bestelakoetan, 506ren  
gainean.

Aztergaiei dagokienez, Lopez Gasenik lau genero aztertu zituen: narratiba, saiakera, poesia  
eta antzerkia. Guk bosgarren bat gehitu genuen, komikia, susmoa baikenuen gora egin zuela.

Hala, bada, liburuen/monografiaren kategoriarako Lopez Gasenik bere ikerketan landu zi-  
tuen parametro berak aztertu genituen guk ere, orduko eta gaur egungo datuak konparatu ahal  
izateko. Honako hauek dira:

- Genero literarioa
- Jatorrizkoen hizkuntzak
- Jatorrizkoen herrialdeak
- Jatorrizkoen argitalpen data
- Jatorrizkoen egileak
- Itzulpenen argitalpen data

2. Manu Lopez Gasenik 2008. urtera bitarteko lanak aztertu zituen, 2008koak barne. Ikerketa 2009an egin zuela kontuan  
hartuta, uste dugu 2008ko itzulpenen informazioa «berriegia» izan zitekeela, eta, horrenbestez, guztiz osatu gabea.  
Haren datuak eta gureak kontrastatu ostean, ikusi genuen aldea nabaria dela (35 izatetik, 61 izatera pasatu ziren), eta,  
beraz, guk ere gure azterketaren barruan sartu genituen 2008ko lanak.

- Itzulpenen egileak
- Argitaletxeak

Parametro horiei beste parametro hauek gehitzea pentsatu genuen, informazio esanguratsua eman ziezaguketelakoan, aurretik aipatu ditugun kezka edo behar horiei erantzuna emateko asmoz:

- Itzultzailearen generoa
- Elkarlanean egindako itzulpenak

Halaber, «Bestelakoak» atalean biltzen diren lanetan, azterketa antzekoa egin genuen. Antzekoa diogu, NdNk atal horretan dakarren informazioaren gainean egin baikenuen lan, eta, beraz, jatorrizkoen herrialdearen parametroa kanpo utzi genuen, eta, jatorrizko argitalpen datari dagokionez, adibidez, ezin izan genuen liburu guztien datuekin lan egin.

Informazio guztia eskaintzeko, zenbait taula eredu baliatu ditugu, eskura genuen informazioaren arabera.

## Datuen analisia

Metodologiaren atalean esan bezala, euskarrietako bakoitzean parametroak aztertzen hasi baino lehen, lortutako datuen osotasuna aurkeztuko dugu.

EUSKARRIA	
Generoa	Kopurua
Monografiak	520
Bestelakoak	506

1. taula: euskarria

## Monografiak

Monografia esaten diegu liburu osoaren formatua duten liburu guztiei.

Genero literarioa

GENERO LITERARIOA			
Generoa	Kopurua	%	MLG <sup>3</sup> %
Narratiba	294	56,53	68
Saiakera	120	23,07	17
Poesia	64	12,31	8
Komikia	22	4,23	-
Antzerkia	19	3,65	7
Besteak	1	0,19	

2. taula: genero literarioa

Narratiba da gehien itzultzen dena; are gehiago, itzulpenen erdiak baino gehiago genero horretakoak dira. Saiakerak, hala ere, espazio garrantzitsua du itzulpenen sisteman. Poesia, eta, neurri txikiagoan, komikia eta antzerkia ere ekarri dira azken urteetan. «Besteak» atalean, Teresa Avilakoaren *Idazlan guztiak* antologia bildu dugu. NdN datu basean, «Literatura» etiketapean aurkitu dugu; izan ere, poemak, saiakera erlijiosoak, gutunak eta askotariko testuak biltzen ditu.

Narratiba izan zen, halaber, 2009ra arte gehien landu zen generoa, baina, orduko datuekin alderatuta, ia 9 puntuko beherakada izan zuen, saiakeraren, poesiaren eta komikiaren mesedetan (6 puntu, 4 puntu eta 4 puntu inguruko gorakada, hurrenez hurren). Antzerkia gutxi itzultzen zen lehen ere, eta ematen du gero eta gutxiago ari dela itzultzen (*Antzerti* aldizkaria ekoizteari utzi izanaren ondorioz beharbada): ekoizpena erdira murriztu da.

Jatorrizkoen hizkuntzak

JATORRIZKOEN HIZKUNTZAK			
Hizkuntza	Kopurua	%	MLG %
Ingelesa	183	35,19	32
Frantsesa	99	19,04	18
Gaztelania	81	15,57	16,7
Alemana	39	7,50	8,4
Italiera	25	4,80	5,3

3. MLG: Manu Lopez Gaseniren azterketa (2009)

JATORRIZKOEN HIZKUNTZAK			
Hizkuntza	Kopurua	%	MLG %
Katalana	15	2,88	-
Errusiera	13	2,50	2,9
Galegoa	10	1,92	-
Portugesa	9	1,73	-
Besteak	46	8,84	13,7

3. taula: jatorrizkoen hizkuntzak

Besteak:

- Japoniera
- Arabiera
- Greziera
- Txekiera
- Daniera
- Errumaniera
- Hebreera
- Islandiera
- Kroaziera
- Latina
- Suediera
- Suomiera/ finlandiera
- Txinera
- Aragoiera
- Bengalera
- Galesa
- Hungariera
- Lituania
- Poloniera
- Serbiera
- Serbokroaziera
- Azerbaijanera

Euskarak, azken hamaika urte hauetan, 31 hizkuntzatarako obrak jaso ditu; hala ere, horrek ez du esan nahi itzultzeko orduan SHa (Sorburu Hizkuntza) kasu guztietan jatorrizko liburua-rena izan denik, bai baitakigu, NdN-n adierazten denez, hainbat itzulpenetan zubi hizkuntzak erabili direla. Zalantzarik ez zegoen arren, ingelesa da oraindik ere euskarara gehien inportatzen dugun SHa, ekoizpenen herena baino gehiago ingelesetik itzuli baitzen (% 35); frantsesarekin (% 19) eta gaztelaniarekin (% 15,6) batera, itzulpen-merkatuaren % 70 baino gehiago hartzen dute. Nabaria da, bestalde, Espainiako beste hizkuntza koofizialekin egon den atxikimendua; izan ere, katalanaren eta galegoaren artean, % 4,8 lortu dute. «Besteak» atalaren barruan, askotariko hizkuntzak bildu ditugu; guztira, 21. Haien artean, japonieratik sei liburu (% 1,15) eta arabieratik bost (% 0,96) itzuli ziren; grezieratik eta txekieratik, launa liburu (% 0,77); hebreeratik eta latinetik bina liburu (% 0,38); eta, aragoieratik, galesetik, bengaleratik edo tankerako hizkuntza «exotiko»etatik, lan bana (% 0,19).

Orain dela hamar urteko azterketan jasotako datuak gure analisisan lortutako emaitzen oso antzekoak izan ziren. Bost hizkuntza itzulienak berak dira, eta ordena berean. Ingelesak arinki gora egin du; frantsesak, gaztelaniak, alemanak, italiarrek eta errusierak, berriz, beherakada arina izan dute. Latinaren kasuan, % 3 izatetik % 0,38 izatera pasatu da.

Jatorrizkoen herrialdeak

JATORRIZKOEN HERRIALDEAK			
HERRIALDEA	Kopurua	%	MLG %
Frantzia	82	15,77	12
AEB	70	13,46	13
Erresuma Batua <sup>4</sup>	34	10,77	11
Espainia	30	5,77	5,6
Euskal Herria	29	5,34	7,3
Alemania	22	4,24	6,5
Italia	21	4,04	6
Katalunia	17	3,27	-
Errusia	8	1,54	-
Galizia	7	1,35	-
Argentina	7	1,35	-
Austria	7	1,35	-
Besteak	110	21,15	38,6
Markatu gabe	87	16,73	-

4. taula: jatorrizkoen herrialdeak

Besteak:

- Irlanda
- Txekia
- Japonia
- Kanada
- Portugal
- Brasil
- Errumania
- India
- Jugoslavia
- Maroko
- Afganistan
- Belgika
- Danimarka
- Finlandia
- Grezia
- Herbehereak
- Islandia
- Mexiko
- Suitza
- Txina
- Aljeria
- Egipto
- Ekuador
- Erromatar Inperioa
- Hegoafrika
- Hungaria
- Israel
- Kroazia
- Lituania
- Martinika
- Maurizio
- Paraguai
- Peru
- Polonia
- Prusia
- SESB
- Suedia
- Ukraina
- Uruguai
- Vietnam
- Zeelanda Berria

4. Erresuma Batua berran sartu ditugu NdN datu-basean «Erresuma Batua», «Ingalaterra» eta «Eskozia» etiketak zituztenak. Manu Lopez Gaseniren azterketan «Ingalaterra» gisa etiketatuta zeudenekin alderatu ditugu.

Frantzia da lan gehien inportatzen dizkiguna. Atzetik, AEB, Erresuma Batua, Espainia, Euskal Herria (hemengo liburuak) eta Italia. «Besteak» atalean, 42 herrialde bildu ditugu. Taulan, 13 garrantzitsuenak daude jasota, eta argi ikusten da Europa dugula jomuga nagusia. Are gehiago, itzulpenen % 60k baino gehiagok Europako herrialderen batean sortutako lanak dituzte abiapuntu. Ipar Amerikako lanek (AEB eta Kanada) % 14 osatzen dute; Erdialdeko eta Hego Amerikako herrialdeetako obrek % 3; Asiatik ekarritako liburuek % 2; Afrikako herrietako itzulpenak % 1 dira; eta Ozeanitik lan bakarra jaso dugu, Zeelanda Berritik, eta % 0,19 osatzen du.

Atal honetako datuak interpretatzean, hala ere, kontuan hartu behar da jatorri ezagunik gabekoen kopurua oso altua dela (87, zehazki, hau da, % 16 baino gehiago), eta, horrenbestez, lortutako datuak orientagarriak baino ez dira.

Dagoeneko, AEB ez da gure esportatzaile nagusia, ehunekotan mantendu —eta arinki igo— bada ere. Izan ere, Frantzia asko igo da (ia 4 puntu), eta lehen postuan jarri da. Ingalaterrak, Erresuma Batuak eta Eskoziak orain dela hamar urteko datuen antzekoak lortu dituzte (% 11 inguru) Euskal Herriko, Alemaniako eta Italiako lanen ehunekoak jaitsi egin dira, eta Espainiakoak, berriz, nolabait mantendu.

#### Jatorrizkoen argitalpen data

Jatorrizko liburuen argitalpen data multzokatzeko, hiru aldi nagusi izan ditugu irizpide: XX. mendearen aurrekoak, XX. mendeko liburuak eta XXI. mendekoak. Lehen tartean, mendeka banatu ditugu; bigarrenean, hamarkadaka (01 bukaera duten urteekin hasi eta 00 bukaera dutenekin bukatuz, biak barne); eta, azken mendean, datu guztiak multzo berean eman ditugu.

JATORRIZKOEN ARGITALPEN DATA				
Garaia	Kopurua		%	
xx. mende aurrekoak	59	XII	1	11,35
		XIV	1	
		XV	2	
		XVI	6	
		XVII	6	
		XVIII	9	
		XIX	34	
xx. mendekoak	212	00	6	40,77
		10	17	
		20	22	
		30	20	
		40	19	
		50	16	
		60	15	
		70	17	
80	36			
90	44			
xxi. mendekoak	180		34,32	
Datarik gabekoak	69		13,27	

5. taula: jatorrizkoen argitalpen data

Lehenengo blokean, XII. mendean hasi, eta XIX. mendera arteko itzulpenak aurki ditzakegu, eta, zehazki, azken multzo horretan daude blokeko liburuen erdiak baino gehiago. XX. mendearen hasierako ezer gutxi itzuli da. 1910eko hamarkadatik 1970eko hamarkadara bitartean, 15 eta 22 liburu artean itzuli ziren. Gorakada nabaria da 1980ko eta 1990eko hamarkadetako itzulpenetan. Azkenik, XXI. mendean bereizi ditugun tartetean, liburuen ia bi herenak azken 11 urteetakoak dira. Orokorrean, literatura garaikidea itzuli da, eta, are gehiago, herena baino gehiago (% 35) XXI. mendeko literatura da.

Lopez Gaseniren datuak antolatzeke modua desberdina da, baina, hala ere, balio digu konparatzeko. Gure lehenengo blokeari dagokionez, berak % 35eko datua eman zuen bost estratotan bilduta; guk, berriz, % 11 inguru, eta, bietan, XVIII. mendekoak dira datu altuenak. Orain dela hamar urte, itzulpen lanen % 61 ziren XX. mendekoak; gaur egun, 20 puntu gutxiago (% 40) baditu ere, beste garaiekin alderatuta nabarmen gailentzen da bi azterketetan.

Hemen ere, datarik gabeko liburuak asko dira; beraz, soilik ideia orokor bat egin dezakegu.

JATORRIZKOEN ARGITALPEN DATA MLG	
Garaia	%
xv. eta lehenagokoak	6,4
XVI	1,6
XVII	6
XVIII	4,5
XIX	16,5
XX	61
XXI	4

6. taula: Jatorrizkoen argitalpen data, Manu Lopez Gaseniren azterketan



Jatorrizkoen egileak

JATORRIZKOEN EGILEAK		
Autorea	Kopurua	%
Toti Martínez de Lezea	12	3,05
William Shakespeare	6	1,52
Agatha Christie	5	1,27
Irène Némirovsky	5	1,27
Marcel Proust	5	1,27
Paul Auster	4	1,02
Elena Ferrante	4	1,02
Jean Echenoz	4	1,02
Dolores Redondo	4	1,02
Virginia Woolf	4	1,02

7. taula: jatorrizkoen egileak


Guztira, 392 autore —gehi beste bi autore ezezagun— itzuli dira euskarara azken 11 urte hauetan. Pentsatzekoa den moduan, portzentajeak oso apalak dira, baina balio dute ideia orokor bat egiteko: gehien itzuli diren 10 idazleen artean, 6 emakume eta 4 gizon ditugu; 5 bizirik daude, hots, idazle garaikideak dira, eta beste 5ak hilik daude; eta bi euskal herritar ditugu. Era berean, itzuliena Euskal Herrikoa eta emakumea izatea esanguratsua iruditu zaigu.

Shakespeare eta Christie dira Lopez Gaseniren azterketan eta gurean errepikatzen diren bi izenak, ehuneko antzekoetan. Emakumezkorik ez zen ia azterketa hartan. Datuei begi kolpe hutsean erreparatuta, pentsa genezake «salgarritasun»ak kanonikotasuna ordezkatu duela. Baieztapen hori egiaztatzeko, ordea, Lopez Gasenik bildu zituen beste autoreen zerrenda osoa gurearekin alderatu behar genuke, eta hori gure lan honen helburutik kanpo geratzen da.

JATORRIZKOEN EGILEAK MLG	
Autorea	%
Miguel de Cervantes	3
William Shakespeare	1,5
Pío Baroja	1,3
Oscar Wilde	1
Agatha Christie	0,9
Guy de Maupassant	0,9

8. taula: Jatorrizkoen egileak, Manu Lopez Gaseniren azterketan

## Itzulpenen argitalpen data



*1. grafikoa: argitalpenak urteka*

Grafiko horretan ikus ditzakegu azken hamaika urteetan urtez urte kaleratutako itzulpen kopurua. Eskuineko zutabek batezbestekoa adierazten du (47,27). Lehenengo urteetan (2008-2012), ugariagoak ziren itzulpenak. Krisiaren eraginez, beharbada, 2013an beherakada nabaria izan zen (31), eta, harrezkero, azken 5 urteetan (2014-2018), urtean 40 itzulpen inguru ekoizten dira; batezbestekoaren azpitik, betiere. Hala ere, NdN datu basea elikatzeko, lan periodikoak egiten dira, eta baliteke oraindik 2018ko liburu denak identifikatuta ez egotea.

## Itzulpenen egileak

Kasu honetan, 520 liburu publikatu diren arren, kontuan izan behar da zenbait itzulpen elkarlanean egin direla. Horrenbestez, berdin zenbatu ditugu itzultzaileek banaka zein beste bat(zu) ekin egindako itzulpenak. Emaitza, eta ehunekoak egiteko zenbatekoa, hortaz, 576 da.

ITZULTZAILEAK		
Itzultzailea	Kopurua	%
Josu Zabaleta	16	2,78
Koro Navarro	15	2,64
Xabier Olarra	13	2,26
Gerardo Markuleta	12	2,08
Bego Montorio	11	1,91
Fernando Rey	11	1,91
Iñigo Roque	10	1,74
Juan Garzia	9	1,56
Julen Kaltzada	9	1,56
Itziar Diez de Ultzurrun	8	1,39
Identifikatu gabekoak	11	4,18

9. taula: itzultzaileak

Egileekin gertatu bezala, hemen ere kuota baxuak lortu ditugu. 263 itzultzaile identifikatu ditugu guztira aurreko inbentariotik gaur egunerako tartean aritu direnak. Gehien itzuli duten lehen hamarren artean hiru emakume baino ez ditugu, eta denak dira itzulpengintzan ibilbide luzea egindakoak. Adin-tarteari dagokionez, Iñigo Roque da gazteena (1970eko hamarkadako) eta Julen Kaltzada zaharrena (1930eko hamarkadako). Haien jatorriari erreparatuta, bi baino ez dira nafarrak; hiru bizkaitarrak dira; eta gehienak gipuzkoarrak dira, lehen hamarreko zerrendatik erdiak (5). Arabarrik eta Iparraldeko itzultzaileak ez dago lan gehien argitaratu dutenen artean.

Olarra, Navarro, Garzia eta Rey «gailurrean» mantendu dira, eta, oro har, aldaketa handirik gabeko portzentajeak lortu dituzte. Mendiguren Bereziartuk eta Dorronsorok, gure datuen arabera, liburu bakarria itzuli dute guk aztergai dugun denbora tartean, Bigurik hiru eta Galarretak bat ere ez. Aipatzekoak dira haien ordez indarrez sartu direnak, besteak beste: Josu Zabaleta, Gerardo Markuleta eta Bego Montorio. Gainera, portzentajeak txikitu egin direnez, esan dezakegu lana atomizatu dela.

### Itzultzaileen generoa

Generoari dagozkion datuak bi taulatan bereizi ditugu. Lehenengo taulan, guztira zenbat itzultzaile aritu diren zenbatu dugu, eta haien artean zenbat diren gizonak eta zenbat emakumeak. Bigarren taulan, adierazi dugu itzulpen guztien artean zenbat izan diren gizonen eginak eta zenbat emakumeen eginak.

ITZULTZAILEAK MLG	
Itzultzailea	%
Xabier Mendiguren Bereziartu	4
Xabier Olarra	3
Lukax Dorronsoro	2,9
Koro Navarro	2,1
Xabier Galarreta	2
Koldo Biguri	1,5
Juan Garzia	1,5
Fernando Rey	1,5

10. Taula: itzultzaileak, Manu Lopez Gaseniren azterketan

Itzultzaileen generoa		
Itzultzailea	Kopurua	%
Gizonezkoak	171	65,02
Emakumezkoak	81	30,80
Identifikatu gabeak	11	4,18

11. taula: itzultzaileen generoa

Itzulpen kopurua generoaren arabera		
Itzultzaileak	Kopurua	%
Gizonezkoak	372	64,58
Emakumezkoak	193	33,51
Identifikatu gabeak	11	1,91


12. taula: itzulpen kopurua generoaren arabera

Esan bezala, 263 itzultzaile zenbatu ditugu. Oraindik ere gizonezkoak dira literatura itzulian nagusi: % 64,77. Murgiondok (2017) egindako ikerketaren ondorioekin bat gatoz gu ere (% 71 gizonezkoak eta % 29 emakumeak).

Emaitza bertsuak lortu ditugu itzulpen kopuruari dagokionez: itzulpen guztien % 64,5 gizonak eginak dira, eta % 33,5 emakumeek eginak. Aldiz, azken hamaika urteetan, 171 gizonak 372 liburu itzuli dituzte, batez beste 2,18 lan; eta 81 emakumeek 193 lan, hots, batezbestekoa 2,38koa da. Datuok adierazten digute emakumeek, gutxiago diren arren, lan gehiago argitaratzen dutela eta gizonen artean lana banatuago dagoela.

### Elkarlanean egindako itzulpenak

Azken urte hauetako itzulpen guztien artean, 40 egin dira elkarlanean, hau da, kopuru osoaren % 8 baino gehiago bi lagun edo gehiagoren artean egin dira. Itzulpenotan, 76 lagunek parte hartu dute.



2. grafikoa: Itzultzaileak elkarlanean

Grafiko horretan, hainbat datu lor ditzakegu. Marradun sektoreetan, inoiz elkarlanean aritu diren itzultzaile kopurua dago adierazita<sup>5</sup>, lehenago esan bezala 76; itzultzaileen kopuru osoarekin alderatuz gero, % 28,90. Genero bakoitzaren proportzioari begira, gizonen % 21,64 (37 gizon, 171tik) dira elkarlanean aritu direnak; emakumeengan, proportzioa altuagoa da, % 48,15koa baita (39 emakume, 81etik) beste norbaitekin aritu direnen kuota.

ELKARLANEAN EGINDAKO ITZULPENEN KONBINAZIOAK					
KIDE KOPURUA	GENEROA	KOPURUA	%	GUZTIRA	
				Kopurua	%
BIKOTEAK	Gizonak bakarrik	11	26,83	33	80,49
	Emakumeak bakarrik	7	17,07		
	Mistoa	15	36,59		
BI KIDE BAINO GEHIAGO	Gizonak bakarrik	1	2,44	8	19,51
	Emakumeak bakarrik	2	4,89		
	Mistoa	5	12,19		

13. taula: elkarlanean egindako itzulpenen konbinazioak

Konbinazioetan, bikoteena da nagusi, eta gehien errepikatzen den formula bikote mistoarena da. Bi kide baino gehiagoko konbinazioetan, 3, 4, 5 eta baita 6 lagunek ere egindako itzulpenak aurkitu ditugu.

Olarra eta Rey izan dira beste itzultzaile batzuekin gehien aritu direnak; 6 eta 4 itzulpenetan, hurrenez hurren. Aiora Jakak eta Amaia Apalauzak hiruna itzulpen egin dituzte beste norbaitekin batera.

5. Beste itzultzaile bat(zu)ekin aritu diren itzultzaileak sektore marradunetan sartu ditugu, eta kolore solidoa duten sektoreetan, soilik bakarrik aritu direnak, hau da, ez dugu itzultzaileak errepikatu, bi jardunetan aritu bada.

## Argitaletxeak

ARGITALETXEAK		
Argitaletxea	Kopurua	%
Igela	46	8,84
Elkar	35	6,72
Alberdania	32	6,15
Klasikoak	31	5,96
Erein	30	5,77
Susa	29	5,58
EHU	27	5,19
Denonartean	24	4,62
Txalaparta	22	4,23
Gaiak	19	3,75
Meettok	18	3,46
Pasazaite	13	2,50
Guztira	326	62,70
Argitaletxeen elkarlanean egindako argitalpenak	59	11,35
Besteak	135	25,96

14. taula: argitaletxeak

Gure taulan adierazten den moduan, euskarara itzulitako liburuen ia % 63 Euskal Herriko 12 argitaletxeren ekoizpenak izan dira. Esanguratsua iruditu zaigu itzulpenen % 11 baino gehiago argitaletxe baten baino gehiagoren artean egindakoak izatea (ikus 16. taula). Lopez Gaseniren datuekin alderatu baino lehen, azpimarratzekoa iruditu zaigu «Besteak» atalean sartu ditugun argitaletxeen kopurua: 58 argitaletxe. Haien artean, garrantzitsuenak ditugu: *armiarma.eus* atarri digitala (10 liburu eta % 1,92), *Katakrak* (9 liburu, % 1,73); *Astiberri* (8 liburu, % 1,54); *Booktegi*, *Artezblai* eta *Hiria* (7na liburu eta % 1,35 argitaletxe bakoitzarentzat); *Maiatz* (5 liburu, % 0,96).

ARGITALETXEAK MLG %	
Argitaletxea	%
Klasikoak	13,4
Ibaizabal	12,7
Igela	8,7
Elkar	8,7
Erein	6
Hiria	5,3
Alberdania	4,5
Osotara	59,3
Elkarlanean: Elkar; Alberdania	5
Besteak	35,7

15. taula: argitaletxeak, Manu Lopez Gaseniren azterketan

ARGITALETXEEK ELKARLANEAN EGINDAKO ARGITALPENAK		
Argitaletxeak	Kopurua	%
Erein, Igela	17	3,27
Alberdania, Elkar	17	3,27
Alberdania, Erein	9	1,73
Alberdania, Erein, Igela	8	1,54
Elkar, Jakin	5	0,96

16. taula: argitaletxeen elkarlanean egindako itzulpenak

Argitaletxeei dagokienez, hirugarren taula honetan ikus dezakegu liburu itzulpen gehien argitaratu dituzten 5 argitaletxeetatik 4 elkarlanean ibili direla euren artean, eta, 14. taulan adierazitako liburuez gain, Ereinek eta Alberdaniak elkarlanean jardun dute beste 34 liburutan; Igelak beste 25etan eta Elkarrek beste 22tan. Esan beharra dago elkarlan askoren atzean LU bilduma dagoela (Erein, Igela eta Alberdania; Elkar eta Alberdania; Erein eta Igela). Alberdaniak eta Ereinek elkarlanean jarduten dute Batera Saila bilduman, eta Elkarrek eta Jakinek Eskafandra bilduman biltzen dituzte lanak.

Manu Lopez Gasenik lortutako datuekin alderatuz gero, baditugu begi kolpe batez deigarri egiten diren bi datu esanguratsu: batetik, Klasikoak bildumako ekoizpenak izan ziren 2008ra bitarteko ugariak. Bestetik, Ibaizabal argitaletxearen inguruko datuak ditugu; garai horretan LU bildumaren lehen aroan hainbat itzulpen argitaratu ostean, argi ikus dezakegu helduentzako literatura itzulia ekoizteari utzi diotela. Orokorrean, esan dezakegu argitaletxeen lanaren atomizazioa gertatu dela, hau da, duela 10 urteko azterketaren arabera, 7 argitaletxe edo markaren artean % 60 inguru ekoizten zuten, eta orain, berriz, lan masa antzekoa (% 62) ekoizten dute 12 argitaletxe eta markaren artean.

### **Bestelakoak**

Lehenago ere esan dugu kategoria honetako fitxa bakoitzaren atzean dagoen testu kopurua ez dagoela zehaztuta (ez da zehazten, adibidez, datu baseko sarrera bakar baten atzean poema bakar bat edo poema batzuk biltzen diren), eta, horrenbestez, hemen bildu ditugun datuek joera nagusiak aztertzeko balioko digute. 506 lan aztertuko ditugu atal honetan.

**Genero literarioa**

GENERO LITERARIOA		
Generoa	Kopurua	%
Poesia	364	71,93
Narratiba	125	24,70
Saiakera	12	2,37
Antzerkia	5	0,99
Komikia	0	0

*17. taula: genero literarioa*

Monografietan ez bezala, poesia da generorik ugariena Interneteko baliabide eta aldizkarietan (ia % 72). Itzulpenen laurdenak narratibakoak dira, eta ia ez dago saiakerarik ez antzerkirik. Komikiak euskarri berezia behar duen heinean, zaila da blogetara egokitzea; gainera, aldizkarietan, luzera kontuan hartu beharreko faktorea da.

**Jatorrizkoen hizkuntzak**

JATORRIZKOEN HIZKUNTZAK		
Hizkuntza	Kopurua	%
Ingelesa	124	24,51
Gaztelania	104	20,55
Frantsesa	59	11,66
Asturiera/bablea	38	7,51
Alemana	32	6,32
Katalana	20	3,95
Italiera	13	2,57
Nepalera	13	2,57
Kurduera	12	2,37
Galegoa	10	1,98
Arabiera	9	1,78
Portugesa	8	1,58
Japoniera	8	1,58
Errusiera	7	1,38
Besteak	46	9,09
Markatu gabekoak	3	0,59

*18. taula: jatorrizkoen hizkuntzak*



Besteak:

- Greziera
- Txekiera
- Suomiera/finlandiera
- Poloniera
- Hebreera
- Hungariera
- Okzitaniera
- Suediera
- Zazakia
- Bengalera
- Bosniera
- Bretoiera
- Daniera
- Errumaniera
- Frisiera
- Haitiko Kreolera
- Iknuita
- Islandiera
- Koreera
- Korsikera
- Latina
- Letoniera
- Lituania
- Mazedoniera
- Nederlandera
- Txinera
- Vietnamera

Ingelesak, gaztelaniak eta frantsesak garrantzi berezia dute «Bestelakoak» atalean, hiru hizkuntzen artean itzulpenen erdiak baino gehiago baitira. Asturiera laugarren hizkuntza itzuliena da Interneteko baliabideetan; izan ere, Karlos del Olmok poema sorta bat itzuli zuen *Senes* aldizkariaren 43. alerako. Antzera gertatzen da nepaleraren kasuan; Koldo Izagirrek zenbait poema argitaratu zituen [armiarma.eus](http://armiarma.eus) atarian, 2015ean. Bitxia da alemana, italiara eta errusiera eta halako hizkuntza handiek zer emaitza txikiak dituzten liburuen argitalpenekin alderatuta. Orotara 41 hizkuntzatako lanak euskaratu dira, eta tartean dira bengalera, Haitiko kreolera, iknuita, korsikera, mazedoniera, okzitaniera, vietnamera edo zazakia hizkuntza «exotiko» eta txikiak.

Euskarri hauean lan gutxiago diren arren, liburuetan baino 10 hizkuntza gehiago topatu ditugu, eta, orokorrean, badaude monografetan hain ohikoak ez diren hizkuntzak.

#### Jatorrizkoen argitalpen data

Parametro honetan, informazioa oso mugatua da, lan guztietatik 182 baino ez baita biltzen. Ideia orokor bat egiteko balioko digu, baina jakitun izanik datuen parte handi bat falta dugula.

JATORRIZKOEN ARGITALPEN DATA				
Garaia	Kopurua		%	
xix. mendekoak	15	30	1	2,96
		40	1	
		50	3	
		70	2	
		80	3	
		90	5	
xx. mendekoak	134	00	3	26,48
		10	10	
		20	10	
		30	19	
		40	10	
		50	14	
		60	22	
		70	19	
		80	10	
90	17			
xxi. mendekoak	33		6,52	
Datarik gabekoak	324		64,03	

19. taula: jatorrizkoen itzulpen data

Testuen % 35 ingururi buruzko datuak baino ez ditugu. Hala ere, nabaria da xx. mendeko testuen eta beste garaietakoen arteko aldea. Mende horretako lanak, hamarkadaka antolatuta, 10-22 artean dira. Deigarria egin zaigu xix. mendetik aurrerako obrak bakarrik egotea eta haien artean mende bukaera gailentz, hau da, esan dezakegu nahiko lan garaikideak euskaratu direla.

Liburuetan xxi. mendeak portzentaje handia zuen arren, hemen, garai horretako lanak % 6,5 baino ez dira.


## Jatorrizkoen egileak

JATORRIZKOEN EGILEAK		
Egilea	Kopurua	%
Leonard Cohen	16	3,13
Sherko Bekas	9	1,78
Mario Benedetti	8	1,58
Jacques Brel	7	1,38
Josep María SalaValldaura	7	1,38
Samanta Schweblin	5	0,99
William Butler Yeats	5	0,99
John Berger	4	0,79
Bertol Brecht	4	0,79
Roque Dalton	4	0,79
Rita Joe	4	0,79
Cesare Pavese	4	0,79
Irina Voinaba	4	0,79

20. taula: jatorrizkoen egileak

Gutxi dira 3 lanetik gora itzuli zaizkien autoreak, eta, gainera, Interneteko atari edo aldizkarietan publikatutako lanak, maiz, bilduma txikiak edota testu laburrak baino ez dira izaten. Itzulien artean, izen handiko idazleak eta, orokorrean, gizonezkoak izatea da joera. Sala-Valldaura eta Schweblin baino ez daude bizirik, eta, hildakoen artean, lau XXI. mendean hil dira; beste hirurak, berriz, XX.ean. Poesia da idazle horiek gehien jorratzen zuten generoa; hala ere, Leonard Cohen-en eta Jacques Brel-en kasuan, kantak itzuli dira. Guztira, 386 autore identifikatu ditugu, eta beste 3 ezezagunak dira.

## Itzulpenen argitalpen data



*3. grafikoa: itzulpenak urteka*

Hiru bloke argi bereizten dira bestelako euskarrietan argitaratutako itzulpenetan. 2008. eta 2011. urteen artean, 17-24 lan argitaratu ziren. Bigarren blokean, nabarmen gainditzen da batezbestekoa (46). Hori ulertzeko, gogora ekarri nahi dugu Elearazi, 31 eskutik eta Berbaratza blogak tarte honetan sortu zirela (2012an aurreneko biak, 2015ean hirugarrena). Era berean, itzulpen lanak 2017tik aurrera jaistearen arrazoietakoa bat blog horien amaierarekin lot dezakegu.

## Itzulpenen egileak

Itzulpenak zenbatzeko, berdin kontatu ditugu, hemen ere, bakarka zein elkarlanean egin-dako itzulpenak. Beraz, atal honetarako itzulpen lanak orotara ez dira 506 izango, baizik eta 512.

Itzultzaileak		
Itzultzailea	Kopurua	%
Koldo Izagirre	82	16,02
Karlos del Olmo	41	8,01
Asier Sarasola	27	5,27
Iñigo Aranbarri	21	4,10
Danele Sarriugarte Mochales	19	3,71
Hedoi Etxarte	18	3,52
Urtzi Urrutikoetxea	18	3,52
Garazi Arrula Ruiz	17	3,32
Miel Angel Elustondo	16	3,13
Josu Landa	14	2,73
Juan Luis Zabala	14	2,73

21. taula: itzulpenen egileak

Interneteko atari digitaletan, aldizkarietan eta txataletan gehien itzuli duena Koldo Izagirre da. Gainera, haren atzetik dator Karlos del Olmo, itzultitako lanen erdiarekin. Sarriugarte eta Arrula dira emakumezko bakarrak, biak Elearaziko kideak. Itzultzaileen adinari dagokionez, urte-tarteak motzagoak dira liburuetan baino, 1950eko hamarkadatik 1980era, eta joera argia da: itzultzaileak gazteagoak dira itzulpenotan, monografietan baino. Ranking honetan ere, gipuzkoarrak dira nagusi (7), atzetik datoz bi bizkaitar eta bi nafar; eta arabarrak eta Iparraldekoak kanpoan geratu dira.

Itzultzaileen generoa

Itzultzaileen generoa		
Itzultzailea	Kopurua	%
Gizonak	60	58,82
Emakumeak	29	28,43
Ezezagunak	13	12,75

22. taula: itzultzaileen generoa

Itzulpen kopurua generoaren arabera		
Itzultzaileak	Kopurua	%
Gizonak	382	74,61
Emakumeak	117	22,85
Identifikatu gabeak	13	2,45

23. taula: itzultzaileen lan zama generoaren arabera

Itzultzaileak 102 izan dira guztira, eta 512 lan euskaratu dituzte. Emakumeak ez dira itzultzaile guztien % 30era iritsi, eta gizonak dira, berriro ere, nagusi. Are gehiago, lan zamaren taulan ikus dezakegu «Bestelakoak» etiketateko lanen % 75 gizonak egin dituztela.

Batez beste, emakumeek 4,03 lan itzuli dituzte eta gizonek 6,37. Liburu formatuan baino itzultzaile gutxiago daude bestelako hauetan, eta ez dago ia alderik euskarri hauetara ekarritako lanen kopuruetan (520 monografia, 506 bestelakoak).

### Elkarlanean egindako itzulpenak

Oso gutxi dira elkarlanean itzuli diren lanak: 506 obratatik, 5 baino ez (% 0,99).

ELKARLANEAN EGINDAKO ITZULPENAK				
Kide kopurua	Generoa	Bikote kopurua	Gizonak	Emakumeak
Bikoteak	Mistoa	3	3	3
	Gizonak bakarrik	2	4	0
Guztira: 10 lagun				

24. taula: elkarlanean egindako itzulpenak

Denak izan dira bikoteak; hortaz, 10 lagun aritu dira jardun horretan: 7 gizon eta 3 emakume. 3 bikote misto eta 2 gizon bikote izan dira konbinazioak.

Aldez aurretik espero genuen kopuruak baxuak izatea; izan ere, poema gutxi batzuk edo luzera laburreko testuak itzultzeko ez da bi lagun edo gehiago behar.

### Argitaratzaileak

ARGITARATZAILEAK ETA EUSKARRIA			
Argitaletxea	Euskarria	Kopurua	%
armiarma.eus	Internet	195	38,53
Senez	Aldizkaria	60	11,86
Elearazi	Internet	40	7,91
31 eskutik	Internet	39	7,71
DSS2016.EU	Internet	28	5,53
Hegats	Aldizkaria	20	3,95
Hitzen uberan	Internet	20	3,95
Berbaratza	Internet	15	2,96
Egan	Aldizkaria	14	2,77
Idatz & Mintz	Aldizkaria	10	1,98
<i>Ihes ederra</i>	Eleberria	9	1,78
Maiatz	Aldizkaria	9	1,78

25. taula: argitaratzaileak eta euskarria

Armiarmako *Euskarari ekarriak* atala da kategoria honetako testuak publikatzeko gehien hautatutako euskarria. EIZIEren euskarriak ere itzulpen lanetarako plaza on bat izan dira, *Senex*, *Elearazi* eta 31 eskutik-en artean % 27,5 osatzen baitute. DSS2016.eu ekimen puntuala izan zen; Donostiak 2016an Europako Kulturaren Hiriburutza eskuratzearekin batera, beste kultur ekimen batzuekin batera, literatur lanak ere itzuli zituzten. Deigarria egin zaigu *Ihes Ederra* Hedoi Etxarteren eta Alain M. Urrutiaren eleberri ilustratuak. Lan horretan, 9 poema itzuli tartekatu ziren.

Euskarriei dagokienez, aldizkariak eta Interneteko atari digitalak nahiko parekatuta daude. Txatalei dagokienez (nagusiki itzulpenak ez diren liburuetan txertatutako itzulpen laginak), oso gutxi topatu ditugu.

## **Ondorioak**

Datuotatik joera berririk identifikatzea zilegi bada, honako hauek emango ditugu balizko joera gisara:

Argi ikusi genuen *Munduko Poesia Kaierak* edo *Zientzia Irakurle Ororentzat* bildumek, besteak beste, poesian eta saiakera itzulian izan duten eragina. Eragina bertsua izan da antzerkian, baina balio negatiboetan, *Antzerti* aldizkariaren desagerpenaren ondorioz. Adibideok ikusita, ondorioztatu genuen genero jakin baten aldeko ekimenek «hutsuneak» betetzen lagundu deza- ketela, eta, horregatik, uste dugu antzerkian zein komikian halakoen parekoak sortzeko beharra dagoela.

Hizkuntza hegemoniko klasikoak jaitsi egin dira, hizkuntza berri eta txikiagoetara jo dela- ko. Horren adibide argiena «Bestelakoak» atalean bildu dugun hizkuntza sorta da. Joera horren arrazoia- ren atzean beste hizkuntza gutxituekiko atxikimendua egon daiteke.

Exotikotasuna bilatu nahi izateak ere eragina izan duelakoan gaude.

Hegoamerikako, Ertamerikako, Afrikako, Asiako eta Ozeaniako lanak oso urriak dira, eta ia bitxikeria modura har daitezke. Gutxi inportatu ditugun hizkuntza eta herrialde horietako lanak gurera ekartzeko, kontuan hartu beharko dugu hizkuntza oztoppo izan daitekeen arren lanak itzul daitezkeela zubi hizkuntzak erabiliz.

Badirudi irakurleen edota argitaratzaileen erreferenteak aldatu direla. Izan ere, xx. mendea- ren aurreko oso lan gutxi itzuli dira, eta batez ere xx. zein xxi. mendeetako lanak ekarri ditugu; gertutasun kronologikoagatik, ziurrenik.

Egileen parametroa aztertu dugunean, kanonikotasuna eta salgarritasuna aipatu ditugu. Momentu oro kontuan hartu behar dugu literatura gutxi kontsumitzen den kultur adierazpena dela eta are gutxiago kontsumitzen dela itzulpena, kontuan izanik irakurleen artean prestigio- rik ez duen jarduna dela. Hala bada, ulergarria da argitaletxeek irakurleen eta moden arabera jokatzeko, interes ekonomikoak baitaude tarteko. Feminismoa adibide hartuta, Eskafandra bil- dumak primeran jakin du irakurleen nahia- ri erantzuten, eta aukera paregabea dela deritzogu, beste autore ezezagun batzuk eta euren ideiak gurera ekartzeko.

Lan merkatuan gizon eta emakumeen artean dagoen arrakala ez da itzulpengintzatik desagertu. EHUko graduari zein EIZIEko bazkideen artean, emakumeak dira nagusi, baina gizonek dihardute literatura euskaratzen. Letren mundua gizonena izan da historikoki, eta oraindik hala dela ematen du, baina ikusi beharko dugu zer-nolako bilakaera duen euskal itzulpengintzak, egungo itzultzaileak erretiratu eta belaunaldi aldaketa erabatekoa denean.

Elkarlanean aritzeak eragina izan dezake itzulpenaren osotasunean. Lan zama arintzeaz gain, kideetako batek hobeto jakin dezake sorburu hizkuntza eta bestea(k), berriz, gure hizkuntzaren estiloan hobeto molda daite(z)ke. Horregatik, batzuetan, euskara eta sorburu hizkuntza dakitena (edo ama hizkuntza duten) itzultzaileen konbinazioa ikusten dugu liburuen azaletan.

Hasieran esan dugun moduan, argitaletxe eta argitaratzaileen panorama aldatzen ari da. Lana atomizatuz doa, orokorrean, itzulpenak kaleratzen dituzten espazio gehiago daudelako, eta gainera, askotarikoak dira.

Azterketa kuantitatibo honekin, datu objektiboak eman ditugu. Atea zabalik uzten diogu, nahi duenari, gure azterketa datuon gaineko azterketa kualitatibo batekin osatzeko.

## BIBLIOGRAFIA

- LOPEZ GASENI, M. (2009): «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)», *Senez: itzulpen aldizkaria*. 37, 299-311.
- MURGIENDO AGIRRE, I. (2019): «Zenbat emakume itzultzailek itzultzen dugu euskarara?».
- NOR DA NOR datu basea, (Azken kontsulta: apirilaren 1ean).
- TORREALDAI, J.M. (2007): *30 urte liburugintzan*. Donostia: Jakin.



### **Resumen**

En este trabajo, como su propio nombre indica, hemos realizado un análisis cuantitativo de los textos literarios que se han vertido al euskera entre los años 2008 y 2018. Presentamos pues este trabajo como una continuación del que ya hiciera Manu Lopez Gaseni hace unos años, y del que hemos partido para realizar nuestro análisis. Hemos querido analizar el estado actual del sistema de traducción literaria en euskera, para así poder comparar los resultados obtenidos con los que obtuvo Lopez Gaseni, y de este modo poder identificar las posibles tendencias actuales.

### **Résumé**

Comme son titre l'indique, nous procédons dans cet article à une analyse quantitative des textes littéraires traduits vers le basque entre 2008 et 2018. Ce travail se veut la suite de celui réalisé par Manu Lopez Gaseni il y a quelques années, puisque nous nous sommes basé sur ce travail pour notre étude. Nous avons voulu analyser l'état actuel du système de la traduction littéraire en basque pour en effectuer une comparaison avec les résultats obtenus par Lopez Gaseni, et ainsi, pouvoir identifier les possibles tendances actuelles.

### **Abstract**

In this research, as the title suggests, we carried out a quantitative analysis of literary works translated into Basque between 2008 and 2018. We present this research as a continuation of the work done several years ago by Manu Lopez Gaseni, which served as our point of departure. Our intention was to analyze the current state of the system of literary translation into Basque, so that we could compare our results with those obtained by Lopez Gaseni and thus identify potential trends.